


## UDALETXEKO ERAKUSKETA

# Santiomenditik botatako granada batek suntsitu zuen udaletxe zaharra

Erakusketa irailaren 15etik 30era jarriko dute udaletxe areto nagusian.



Hernaniko udaletxea honelaxe gelditu zen 1875eko irailaren 16an.

### HISTORIA

- Eraikin zaharra 1679koa zen.
- Santiomenditik karlistek botatako granada batek txikitu zuen, liberalek areto nagusian zeukaten polbora jota.
- 111.792 pezetako kalteak, bi hildako eta 31 zauritu utzi zituen granada hark.
- 1887an hasi ziren berritze lanak eta 1890an inauguratu zen oraingo udaletxea.
- 229.085 pezetako kostuari buelta emanteko 500 pezetako bonoak atera eta sagardoaren eta jabiaren gaineko zergak jarri zituzten.

AURTEN dira 125 urte Hernaniko udaletxea txikitu zutela. Horren bueltan erakusketa antolatu dute irailaren bigarren hamabostaldirako. Hiru zati nagusi ditu:

**1) KARLISTEN GERRA**  
Bigarren karlistadan suntsitu zuten eraikin zaharra. Karlistadaren inguruko datuak, irudiak eta suntsitu zutenekoari buruzkoak ikusi ahal izango dira lehen zatian.

**2) BERRITZEKO PROIEKTUA**  
1885. urtean Joakin Fernandez de Ayarragarai arkitektu

hernaniarrari enkargatu zitzaion proiektua. Plano guztien kopia erakusketan izango dira.

**3) JOAKIN FERNANDEZ DE AYARRAGARAY**  
Arkitekto hernaniarra Sevillan bizi izan zen urte askotan. Hernaniko udaletxeaz gain maila haundiko proiektu asko egin zituen. Bere biografia prestatu dute.

**ORDUTEGIA**  
- Astegunetan: 18:00-20:00.  
- Larunbatetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.  
- Jaiegunetan: 12:00-14:00. □

## FUTBOL LIGA

# Hernanik garaipena nahi du gaur Zubipen

Errealaren aurka jokatuko du 17:00etan. Talde gaztea, baina, borrokalaria dute etxekoek.

3.MAILAKO taldeak etxeko lehen partidua du gaur. Errealaren aurka galtzak bete lan izango dute, baina saiatuko dira irabazten.

Ohorezko mailako taldeak ere Zubipen du ligako lehen partidua. Gaur 11:00etan Oartzunen aurka jokatuko du.

**ATZOKO PARTIDUAK**  
Ligari hasiera txarra eman zioten hernaniko gazteek. Jubeniletako bi taldeek galdu egin zituzten jokatutako partidua, nazional mailakoek 4-1 Añorgaren aurka; ohorezko mailakoek, berriz, 0-1 Eibarren aurka. □

## TXILLIDAREN MUSEOA ZABALAGAN

# Datorren asteburuan inauguratuko da 'Txillida-Leku'

Baserri barruan, eskultura txikiak eta marrazkiak ditu; kanpoan, berriz, harrizko eta burdinezko arte lanak.

TXILLIDAK Zabalagan "urte askotako ametsa" egia bihurtu dela ikusiko du. Inaugurazioak ostiralean eta larunbatean izango dira. Hala ere, ikustera joan nahi dutenek itxaron egin beharko dute, publikoarentzat hil honen 26-ean zabalduko da-eta.

**AZNAR, JUAN CARLOS I ETA SCHRÖEDER**  
Prensan zabaldua egia bada, Espainiako Erregea, Presidente eta Alemaniako Kantzillera bera ere, Zabalagan izango dira datorren larunbatean, beste politikoko eta autoritate askorekin batera. □

## ESKOLA UMEENTZAKO JANGELA

# Izen ematea zabalik da

Udaletxean eman behar da izena, goizetan. Bihar hasi eta irailaren 21ean bukatuko da epea.

UDAL jangelan bazkaldu nahi duten eskola umeek izena orain eman beharko dute. Jangela hau kiroldegi gainean dago eta ikasturte guztian egongo da zabalik. Garai bate-

tik asko jaitsi da hango martxa. Lehen, eskola guztietako umeak bertan bazkaltzen zuten, baina, pixkanaka eskola baikoitzak bere jangela jarri du, eta jendez asko bajatu da □



Edurne Morzillo Lanberrik Parisera bidai bat irabazi du, bere argazkiak IMAGE CENTERen errebelatzeagatik.

**Image Center**

J.A. TORRES

Merkatuko kalitate eta preziorik onenak 13x18 eta 10x15 tamainan.

Atzieta 2, Tel: 943 331915  
20120 HERNANI



**AMEGAR, C.B.**  
**ETXE TRESNAK**

Ispizua, 27- HERNANI

Zuretzat berri degu!

### ESKAINZA BEREZIAK

PHILIPS BIDEOA, 23.900 pta  
ZANUSSI GARBIGAILUA (800 r.p.m), 59.000 pta  
MIKROUHINAK L.G., 12.900 pta

Telefonoa (943) 55.11.25 - Faxa (943) 55.16.03

## LURDESERA PEREGRINAZIOA GAUR

# Aurten 200 bat lagun izango dira urteroko egunpasan

Maritxuk esan digunez, 25 urtetik gorako ohitura da Lurdeserako erromesaldia.



Herritarrak mezetan. Lurdesen ere izango dute ordubietako meza entzuteko aukera.

GOIZEKO zortzietan Atsegindegitik atera eta hamaikak eta erdiatarako Lurdesen izango dira hiru autobus. Ordu-bietako meza entzun, bazkaldu eta arratsaldea bakoitzak

bere erara pasatzeko plana dute. Hernaniarrak ez ezik Donostiako jendea ere badijoa. Antolatzaileetako batek, Maritxuk Kronikari esan dioenez, ezindu talde bat ere joa-

ten da beren monitore eta guzti. Egun pasa bukatzeko, bertan afari-merienda egin eta zortzietan martxa Hernani aldera; hamaiketarako etxean izango dira. □

## Saskibaloia kiroldegian

Katalunia eta Gipuzkoako jokalariek gazteek saskibaloia eguna izan zuten atzokoa. Hasi 11:00etan eta 17:15etan jokatu zuten azken partidua.

EMAITZAK		
Alebinak		
Mingelak	52	Askatuak 58
Hernanik	46	Loyolak 22
Hernanik	30	Mingelak 40
Loyolak	20	Askatuak 60
Infantilak		
Askatuak 21	Atletikok	53
Askatuak 38	Loyolak	19
Askatuak 73	Atletikok	40
Loyolak	67	Askatuak 36

Gaur partidu gehiago goizeko 11:00etan hasita. □



Hernaniko saskibaloilari gazteak (txuriz) katalanekin batera.

## IRAGARKI MERKEAK

► Emakume bat behar dugu, umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 555916.

► 35 urtetik gorako pertsona bat behar dugu, goizeko 8:30etatik 14:30etara etxeko lanak egiteko. Deitu 19:00etatik aurrera. Tel.:943 219768.

► Etxeko lanak egiten eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduetgia aukeran. 608.74 22 33. Deitu 14:00etatik aurrera.

► Asteburuetan edadeko jendea edo gaixoak zainduko nituzke, nahiz etxean nahiz ospitalean. Esperientzia dut. 627 611161.

**ERRIOGUARDA**  
E N E A  
Iturriaga Kalea 10. Tel.:(943) 33 02 91  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

**Allianz**  
ASEGURUAK  
**Agustin Ezponda**  
AGENTZIA  
Tel.: 943 557 326  
656 735 109

## HITZ BITAN

### ✓ POLITIKA

Ehun hernaniar inguru EHk Bilbon antolatutako manifestazioan. *Burujabetza eta pakea* lema zuela, EHk milaka lagun bildu zituen. Ekitaldi politikoan datorren ikasturte politikorako ardatzak irakurri zituzten.

### ✓ TXIRRINDULARITZA.

Zikuñagako Amako zikloturistak San Martzialera. Goizeko zortzietan Zinkoenatik atera eta 56 km-ko buelta egingo dute Hondarribitik barrena. Abuztuko etena eta gero, iganderoko martxa hartu dute berriz. Datorren astean Altzagaratera dira joatekoak.

### ✓ PEÑA OTAÑO

Bihar itxiko dute soziedade hilabeterako. Sukaldea eta gas instalazioa berritu egin behar dituzte eta urriaren 13a arte itxita izango da. Hala ere, Peña Otañok beste elkarteekin tratua egin du eta bazkideek libre dute nahi dutenera joatea.

### ✓ ROKODROMOA

Bihar rokodromoaren inguruko kontuak eztabaidateko asanblada izango da Tilosetan. Talde bat Hernanin rokodromo egiteko asmotan dabil. Azken aldiak bilerak egin dituzte eta idea, oraingo, aurrera doa. Talde honek bihar 20:30etarako konbokatu du asanblada.

### ✓ PELOTA

Garikoitz Erroizenea eta Jon Zabala Lezoko torneoko final erdietan. Hernaniko pelotariak fuerte dabilta udarako torneoetan. Bihar Erroizenea-Arkotek Las-Zabalaren kontra jokatu dute; Jon Zabala-Pradok, berriz, Mendizabal-Gurru-tagaren aurka. Partiduak 18:00etan hasiko dira. □

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943464622
- Autobusak 943 556662
- Anbulatorioa: 943 557750

### ✚ FARMAZIAK

- Egunez: Sagastiberri Urbieta, 7  
☎ 943 552941
- Gaez: Sagastiberri Urbieta, 7  
☎ 943 552941

**ARALAR**  
TABERNA  
ZAPA KALEA 8, Tel. 943.331506

## HERNANIKO

### KRONIKA

Herriko egunkaria  
Eskatu zure kioskoan.

**SANTA BARBARA**  
PEUGEOT  
Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15  
Tel. 943 551 139 - Fax 943 551 152, 20120 HERNANI

### AUKERAKO AUTOAK

Citroen AX Diesela - 5 ate	VI-L
Ford Escort Diesela	SS-AK
Ford Escort Familiarra Turbo Diesela	SS-AV
Ford Mondeo Turbo Diesela- Haize egokitua	SS-AV
Opel Astra Diesela 5 ate	SS-AT
Opel Corsa 'Don Algodon'	SS-AF
Opel Kadett 1.3 - 4 ate	SS-AH
Peugeot 205 Diesela - 5 ate	SS-AW
Peugeot 306 Turbo Diesela-Llantak-H.egokitua	SS-BB
Peugeot 405 Haize egokitua	SS-AP
Peugeot 405 SRI-Llantak-Haize egokitua	SS-AB
Peugeot 405 Turbo Diesela-Haize egokitua	SS-AG
Ford Courier Diesela - Lagundutako direkzioa	SS-AV
Citroen C:15 Diesel 'mixtoa'	SS-AH
Suzuki '4 X 4'	NA-V

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...